


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## Boletín 3. Buletina

Año 2021. Urtea

**0 indarkeria 0 urtetik**

/

**Violencia 0 desde los 0 años**



ISSN: 2952-1254



**gandere**

GANDERE Taldeak, lagungarriak izan daitezkeen baliabide eta ikerketak identifikatu, sustatu eta hedatu nahi ditu hezkuntza testuinguru desberdinetan: eskolan, familian, mediatikoan eta sozialean.

Hirugarren buletin honek "0 indarkeria 0 urtetik" du izenburu eta bere helburua eskola eremuan ematen diren jazarpen eta indarkerien oinarrian dauden sustraiak azaleratzea izateaz gain, hauei 0 urtetik hasita eskola eremuan nola aurre egin diezaiokegun aurkeztea da.

Horretarako, lehenik eta behin, Harkaitz Zubirik ikastetxeetan indarkeriari aurre egiteko martxan jartzen den edozein ekimenen oinarrian ebidentzia zientifikoak egoteak duen garrantzia arituko da, ebidentzia hauen edukiak gure eskura jarritz.

Bigarrenik, Elkar Hezi ikastetxeko Martin Jauregialzo, Leire Arietaleanizbeaskoa eta Juankar Olaetak indarkeriari 0 urtetik aurre egiteko beraien ikastetxean abian jarri dituzten ekimenak eta hauek sutengatzen dituen testuingurua zein den azalduko digute.

Eta azkenik, Leire Ugaldek, Bigarren Hezkuntzan aurrera eramán den eta emaitza oso onak lortu dituen MEMO4LOVE ikerketa proiektuaren berri emango digu.

El Grupo GANDERE pretende identificar, promover y difundir recursos e investigaciones de apoyo en los diferentes contextos educativos: escolar, familiar, mediático y social.

Este tercer boletín lleva por título "Violencia 0 desde los 0 años" y tiene como objetivo, además de hacer aflorar las raíces en las que se sustentan las persecuciones y violencias que se dan en el ámbito escolar, presentar cómo podemos afrontarlas desde los 0 años en el ámbito escolar.

Para ello, en primer lugar, Harkaitz Zubiri hablará sobre la importancia de que haya evidencias científicas en la base de cualquier iniciativa que se ponga en marcha para combatir la violencia en los centros educativos, poniendo a nuestro alcance los contenidos de estas evidencias.

En segundo lugar, Martin Jauregialzo, Leire Arietaleanizbeaskoa y Juankar Olaeta, del colegio Elkar Hezi, nos explicarán las iniciativas que han puesto en marcha en su centro para combatir la violencia desde los 0 años y cuál es el contexto que las inflama.

Y, por último, Leire Ugalde nos acerca el proyecto de investigación MEMO4LOVE que se ha llevado a cabo en Educación Secundaria y que ha obtenido muy buenos resultados.

***Autoretza / Autoría:***  
*Harkaitz Zubiri-Esnaola;*  
*Leire Ugalde-Lujambio.*

***Irudien iturria / Fuente de las imágenes:***  
*Unplash; Pexels; Pixabay.*

**ISSN: 2952-1254**

GANDERE Ikerketa Taldeak Donostian argitaratutako buletina. Informazio gehiagorako:

Boletín editado en Donostia-San Sebastián por el Grupo de Investigación GANDERE. Para más información:

[gandere@ehu.eus](mailto:gandere@ehu.eus)  
[www.ehu.eus/gandere](http://www.ehu.eus/gandere)  
[www.gandere.eus](http://www.gandere.eus)



## 0 indarkeria 0 urtetik hasita

Harkaitz Zubiri Esnaola Soziologian Dokorea da. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko (HEFA) Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saileko (DLL-HLD) irakaslea eta ikertzailea. Bere ikerlerroak hezkuntza, hizkuntzen ikaskuntza, kultura eta genero arlokoak dira.

Ez dira jolasak. Ez dira umeen kontuak. Ez dira naturalak. Maiz normalizatzen da, askotan bihurtarazten dugu ikusezin, baina izan, indarkeria ohikoa da ikastetxeetan. Esate baterako, AEBetan 12-18 urte artean %28ak jasaten du bullying-a edo eskola jazarpena (Robers et al., 2012). Baina ez da nerabezaroan hasten. Normalean, lehenengo haurtzaroan hasten dira jazarpena jasaten, zuzenean edo zeharka (Finkelhor et al., 2009), eta adin guztietan gertatzen da. Zoritarrez, arazoa ez da denborarekin besterik gabe konponduko, gazteen artean kopurua handiagoa da-eta (Stöckl et al., 2014).

Indarkeriak forma asko har ditzake ikastetxeetan: indarkeria fisikoa edo hitzezkoa, bazterkeria soziala, humiliazioa... (Wang et al., 2009). Eskola jazarpenak sakonera eta iraupen luzeko ondorioak

eragin ditzake jasaten dutenengan. Harreman onak funtsezkoak dira bizitza osasuntsua eta zoriontsua bizitzeko (Harvard Study on Adult Development). Osasunarentzat tabakoa, obesitatea edo kutsadura bezain kaltegarria da harreman onak ez izatea (Holt-Lunstad et al., 2010). Hortaz, eskolako jazarpenari aurre egitea lehenetsuzkoa da. Gainera, eskolan bizikidetzaren ona lortzeko mesede nabarmena egiten dio umeen eta gazteen garapen osasuntsuari, eta, era berean, lorpen akademikoak sustatu egiten ditu (Thapa et al., 2013).

Hainbat ikastetxetan sekulako emaitzak lortu dituzte. Bizikidetzaren giroa nabarmen hobetu dute. Gakoa, beti, oinarri zientifiko sendoekin lan egitea da.

### Egiten dugunaren eraginkortasuna bermatu ahal izateko

Nekez funtzionatu dute oinarri zientifikorik ez duten ekimenek. Agian, gatazka ikusgarrienak desagerraraz ditzakete, baina istilu horiek izebergaren punta besterik ez dira. Horregatik, ekimen isolatuak ez dute ondo funtzionatzen.

Adibidez, egun gutxi batzuk irauten duten ekimenek ezin dute arrakastarik izan. Konponbideak, ezinbestean, egunerokotasunean errotu behar dira.

Egiten dugunaren eraginkortasuna benetan bermatu nahi badugu, bereiztu egin behar ditugu ekintza ez-zientifikoak, ebidentzia zientifikoak eta inpaktu sozialaren ebidentzia zientifikoak. Ekintza ez-zientifikoak ez ditu ikerketaren emaitzak aintzat hartzen. Beharbada, ekimena abiarazten dutenak lasai gelditu daitezke, baina jazarpena sufritzen dutenentzat ez dira eraginkorrak.

Bestalde, bereiztu egin behar ditugu ebidentzia zientifikoak eta inpaktu sozialaren ebidentzia zientifikoak. Ebidentzia zientifikoak ikerketaren emaitza dira. Etorkezunean baliagarriak izan daitezke inpaktu soziala lortzeko, baina oraindik ez dute lortu inpaktu soziala eragitea. Aldiz, inpaktu sozialaren ebidentzia zientifikoek erakutsi egiten digute zerk eragiten duen inpaktu soziala. Ekintza batek inpaktu soziala dauka baldin eta jendearen bizitza hobetzea lortzen badu (Van den Besselaar et al., 2018).

Beraz, gure ikasleek jasaten duten jazarpena benetan geldiarazi nahi badugu, inpaktu sozialaren ebidentziek gidatu behar dute gure jarduna. Beste eremu batzuetan (ingeniaritzan, medikuntzan...) inork ez du honi buruz zalantzarik. Nork gurutzatuko luke egunero oinarri zientifiko sendorik gabe egina dagoen zubia? Eskuhartze sozialen eremua ez luke desberdina izan behar.

Non aurki ditzakegu inpaktu sozialaren ebidentziak? Goi mailako aldizkari zientifikoetan. Zientzilariek elkarren lana balidatzeko erabiltzen dira puntako aldizkari zientifikoak. Horregatik dira ezagutza fidagarriena. Bestelako argitalpenek ere egiten dute ezagutza honen dibulgazioa (zenbait aldizkari dibulгатibok, egunkarietako zenbait artikuluk...), baina kasu hauetan ez da nahikoa ebidentzietan oinarritzen direla esatea; ezinbestekoa da jatorrizko iturria zein den esplizituki adieraztea, irakurleak egiaztatzeko aukera izan dezan.

### **Gatazken Prebentziorako eta Konponbiderako Eredu Dialogikoa da eraginkorrena**

Eskolako indarkeriaren kontra hiru eredu bereiztu ditzakegu: zigortzailea, bitartekaritza bidezkoa, eta dialogikoa. Eredu zigortzailea hierarkikoa da. Autoritatea duten helduek erabakitzen eta ezartzen dituzte arauak. Bitartekaritzan oinarritzen den ereduak, aldiz, zenbait ikaslek bitartekari lana egiten dute erasotzaileen eta biktimen artean. Eredu dialogikoan, berriz, lekukoak aktibatzea da oinarria, eta, horretarako, elkarriketarako espazio asko eskaintzen dira, arauak elkarriketa berdinzaileen bitartez eraikitzen dira, eta komunitate osoa (ikasleak, familiak, irakasleak) inplikitzen da gatazken prebentzioran eta konponbidean.

Eredu dialogikoa da guztietan eraginkorrena. Adin guztietan eta testuinguru mota guztietan ondo funtzionatzen du. Erabili izan da Haur Hezkuntzan (Ríos-González et al., 2019), Lehen Hezkuntzan (Villarejo-Carballido et al., 2019), Bigarren Hezkuntzan (Racionero-

Plaza et al., 2020) eta Hezkuntza Berezian (Duque et al., 2021).

### **Lekukoak aktibatzea da gakoa**

Erasotzaileak beste norbait jazartzen duenean, helburu jakin batekin egiten du: bere testuinguru sozialean bere posizioa sendotzeko modu bat da. Jendea berari begira jarri nahi du, lehen baino ikusgarriago bihurtu nahi du, eta horretarako zapaltzen du beste norbait, bere helburuak lortzeko ondo funtzionatzen diolako. Errentagarritasun soziala lortzea da jazartzailearen helburua.

Horregatik dira lekukoak hain garrantzitsuak. Lekukoak elikatzen dute jazarpena baldin eta lekukoak erasoak babesten badute edo erasoaren aurrean biktima babesten ez badute.

Lekukoak aktibatzen direnean, ordea, erasotzaileari garbi adierazten diote ez dutela jazarpena onartzen. Ondorioz, erasotzaileak ez du sozialki saririk lortzen jazarpenagatik.

Beraz, erasotzailearentzat ez da errentagarria jazarpenarekin jarraitzea.

Jazarpenean ari den batek ez du besterik gabe aldatuko bere jokabidea. Sozialki funtzionatzen ez dionean bakarrik izango ditu aldatzeko aukerak. Erasotzaileak garbi sentitu behar du gainerako gaitzespena. Norbaiti eraso egiten dion bakoitzean, gainerakoek baztertu egiten dutela sentitu behar du. Helburua ez da pertsona isolatzea. Helburua, jokabideak isolatzea da, baina horretarako pertsona horri jokabideak aldatzeko benetako aukerak eman behar zaizkio. Inorentzat ez da berezkoa beste norbait erasotzea. Sozialazioaren emaitza da. Beraz, harreman berdinzaleetan eta indarkeriarik gabekoetan sozializatzeko aukera ematea ezinbestekoa da.

Helburu nagusia, hala ere, biktimari babesa ematea da, biktima izateari utz diezaion eta biziraule (*survivor*, *superviviente*) bihurtu dadin. Sufritu duen jazarpenearekin bizi beharko du, ez zaio ahaztuko, baina, inguruko babesari esker, ondo moldatuko da egoera berrian. Jazarpene jasaten dutenean, ohikoa da erasoaren errua (partzialki behintzat) biktimei leporatzea ("ez da oso trebea sozialki", "arraroa da",

"ez du lagunik" ...), baina hori, jazarpenearekin bat egitea besterik ez da. Konplizitate mota horiek oso arruntak dira jazarpene kasuetan. Nekez gerta daiteke jazarpene konplizerik gabe. Biktimak biziraule bihurtu daitezela, ezinbestekoa da jazarpene sufritzen duenari oso garbi uztea ez duela jazarpenean inolako errurik.

Ez da itxaron behar jazarpene oso larria izan arte. Ez da itxaron behar biktima oso gaizki dagoen arte. Prebentzio lana funtsezkoa da jazarpenearen ondorioak handiegiak izan ez daitezen. Adin oso txikietatik eta testuinguru guztietan eskuhartu behar da. Eskuhartze eraginkorra, lekukoak aktibatzea, erasotzailearen jokabideak isolatzea, eta biktimari babesa ematea da.

Irakasleen ekimenak hutsalak dira baldin eta lekukoak inplikatzeko ez badituzte. Demagun irakasleek behaketak egitea erabakitzen dutela. Demagun erasotzaileekin eta biktimekin hitz egiten dutela, eta, datuak jasotzen ondoren, zer egin beharko luketen gogorarazten dietela ikasleei. Ekimen horien arrakasta oso txikia

izango da (arrakastarik batere badaukate), zeren ez baitute kontuan hartzen jazarpenearen funtsezko motorra. Ikusten diren erasoak izebergaren punta besterik ez dira.

### Generoa eta diskurtso koertzitiboa

Jazarpene gertatzen denean, generoari lotutako arazoak egon ohi dira oinarrian. Indarkeria horren sustraiak zeintzuk diren ondo ulertzea beharrezkoa da gure eskuhartzeak zentzua izan dezan eta, ondorioz, eraginkorra izan dadin.





Arazoaren oinarrian diskurtso koertzitiboa dago. Indarkeria eta erakargarritasuna uztartu egiten ditu. Puigvert-ek eta bere kideek (2019) garbi erakutsi zuten askoren begietara mutil bat erakargarriagoa dela indarkeriazko jokabideak dituenen, eta, kontrara, indarkeriari lotuta ez dauden mutilak jator bezala hartu ohi direla baina ez dutela halako erakargarritasunik pizten, askoren ikuspegitik behintzat. Hau da, ona eta erakargarria bereizi egiten direla, eta, alderantziz, indakeria eta erakargarritasuna uztartu. Emaiza horiek berretsi egin zuten aurretik ikerketa kualitatiboen bitartez aurkitu zutena.

Lehenengo aldiz entzuten duenarentzat harrigarria sorta daiteke, baina jadanik ikerketa kopuru handia dago, ebidentzia sendoa da, eta, gainera, parametro horietan lan eginda, bizikidetzaren emaitza onak lortzen ari dira praktikan. Hots, inpaktu sozialaren ebidentzietan oinarritzen dela.

Diskurtso koertzitiboa ez da berezkoa. Goitik behera inposatzen da. Sozializazioan gauzatzen da. Ez da bakarrik esaten

ditugun gauzetan oinarritzen. Sozializazioan ekintza komunikatiboek osagai asko dauzkate: hitzak, begiradak, gorputzezko komunikazioa, arreta non jartzen dugun... Interakzio mota guztietan gertatzen da sozializazioa. Erakargarria zer den eta zer ez ikasten dugu. Diskurtso koertzitiboa eremu askotan sustatzen da: eskolan, lanean, serieetan, pelikuletan, bideojokoetan, berdin arteko interakzioan...

Eskola jazarpenaren oinarrian dago diskurtso koertzitiboa. Erasotzen duenak erakargarritasuna irabazten badu, jazarpenarekin jarraitu egingo du, errentagarria delako beretzat. Eskola jazarpenari aurre egin ahal izateko, indarkeriazko jokabideek sortzen duten lilura desagerrarazi beharra dago, eta horretarako ezinbestekoa da jokabide zintzoen erakargarritasuna sustatzea. Etikan oinarritutako diskurtsoa ezinbestekoa da, baina ez da nahikoa. Etikan oinarritutako diskurtsoak ez du funtzionatuko baldin eta erakargarritasunik eragiten ez badu.

Genero indarkeriarekiko atxikpenaren oinarrian ez dago klase soziala, oinarria ez dira ikasketak, kultura, jatorri etnikoa, jatorri sozio-kulturala... Ez dago horren ebidentziarik (garrantzitsua da korrelazio harremanak eta harreman kausalak garbi bereiztea). Genero indarkeriaren gakoa, indarkeriarekiko atxikipena da soilik, bere horretan.

Baina gainditu daiteke (Racionero et al., 2018, Racionero et al., 2020). Interakzio aiprosen bitartez egiten da hori.

### Espazio seguruak sortu behar ditugu

Libreki aukeratzea da gakoa. Horixe da ahalduntzea: askatasunean erabakitzea eta ez inor menpean hartzea. Hori egiten ikas dezagun, espazio seguruak sortu behar ditugu, erasoetatik libre, ikasleek lasai eta indar betean amets egiteko aukera izan dezaten, eta beren jardunean patxadaz kontzentratu ahal izan daitezen. Pluraltasuna eta askatasuna talde bezala bermatu behar dugu, eta hori, indarkeriari uko egitetik abiatzen da. Hain zuzen hortik

abiatzen da Gatazken Prebentziorako eta Konponbiderako Eredu Dialogikoa.

Elkarrizketa berdinzalearen bidez adostasunetara iristea da gakoa. Helburua, bizikidetzarako arauak adostea da. Horretarako, komunitate osoko kideak (batez ere ikasleak) inplikatu behar dira prozesu partehartzaile horretan. Arauen sorreran parte hartzeak erraztu egiten du arauak lotesleak izatea eskolako kide guztientzat, beti ere elkarrizketa berdinzalearen bitartez egiten bada.

Adostutako araua eraginkorra izan dadin, sei irizpide bete behar ditu:

1. Pentsakera eta adin guztietako pertsonak modu argian adosteko modukoa izan behar da.
2. Ikasleen bizitzan garrantzitsua den zerbaitekin lotura estua izan behar du.
3. Gizarteak, oro har, hitzez behintzat, begi onez ikustea.

4. Ikastetxean (ordura arte) etengabe hausten den araua izatea.

5. Arazoa desagerrarazteko aukera benetakoa izatea.

6. Arazoa desagerraraziz, eskola-komunitatea eredu bihurtzea gizartearentzat, familientzat, irakasleentzat eta ikasleentzat.

Araua egunerokotasunean errotu dadin, elkarrizketarako espazioak eskaini behar ditugu etengabe. Gero eta gehiago, hobeto. Gatazken prebentziorako oso eraginkorrak dira. Bizitzan garrantzitsuak diren gauzei buruz hitz egiteko aukerak sortzen direnean, bizikidetzaren on bat mantentzeko aukerak handitu egiten dira. Ideiak berdintasunean partekatzen ditugunean, ideia baliotsuenak zeintzuk diren eztabaidatzea komeni da. Horrela, bizikidetzarako egokiak ez diren ideiak aldatzeko aukerak sortzen dira.

Funtsezkoa da, adibidez, laguntasuna, maitasuna eta elkartasuna lantzea ikastetxean. Horiek guztiak indarkeriaren

kontrako prebentziorako oso baliagarriak dira. Balio horiek indartzen direnean, bizikidetzaren nabarmen hobetzen da. Ohikoa da balio horiek ikastetxeko arauan txertatzea.

Genero indarkeria gainditzeko, ezinbestekoa da babesten dutenak babestea (Flecha, 2021). Lekuko batek biktimari lagundu edo ez erabaki behar duenean, faktore garrantzitsuen errepresaliak jasotzeko beldurra da. Beraz, babesle potentzialek ere sentitu behar dute babesa. Horrela, errazagoa izango da lekukoak aktibatzea.



Era berean, lan akademikoa fundamentuz egiteko espazioak bermatu behar dira. Ez dago bizikidetzaren eta lan akademikoaren artean aukeratu beharrik, zeren biak ondo badoaz, elkar elikatzen baitute (Flecha, 2015). Are gehiago, maila akademiko

eskasa gailentzen denean, jazarpenean aritzen direnen erakargarritasuna handitu egiten da (Sutton et al, 2000). Beraz, oso lagungarria da ikasle guztiekiko espektatiba handiak izatea eta ikasle guztiek helburu akademikoak lortzeko benetako aukerak eskaintzea. Alderdi emozionalak eta akademikoak erraz uztartu daitezke, esate baterako, Talde Elkarreragileetan eta Solasaldi Dialogikoetan (León-Jiménez et al., 2020; Villardón-Gallego et al., 2018).

Gatazkak sortzen direnean, zer gertatu den guztien artean argitu behar da. Lekukoen partehartzea funtsezkoa da. *Me too* mugimenduan egin den bezala, ikasgelan ere oso garrantzitsua da indarkeriaren aurka posizionatzea. Pauso hori ematen dutenen ausardia balioestea funtsezkoa da. Biktima babesten dutenak dira ausartak, eta erasotzaileak dira koldarrak. Erasotzaileak beti saiatzen dira ausartak direla adierazten, badakitelako ausarta izatea erakargarria dela, baina, benetan, koldarrak izaten dira, ez dietelako inoiz kide indartsuenei erasotzen. Lekukoak erasoan aurka posizionatzen direnean,

erasotzaileen koldakeria azaleratu egiten da, lilura hori galdu egiten dute lekukoen begietara.

Gatazka batean zer gertatu den argitzen denean, biktima babestea da garrantzitsuena, arreta berarengan jartzea. Erasotzaileari arreta erretiratu behar zaio. Jokabideak isolatzeko modu eraginkorra da. Ausarten Kluba deitzen denaren bidez egiten dute hori zenbait ikastetxetan. Ausartzen Kluba ez da ekimen isolatua izaten. Prebentziorako ekimenak lantzen dira, arauak argitu egiten dira, hausnarketarako espazioak martxan jartzen dira, eta gatazka sortzen den bakoitzean, bizikidetzaren onak bermatze aldera, Ausarten Klubaren bitartez hartzen dira erabakiak.

### Eskola eraldatzaileak

Ikastetxeak espazio bikainak dira eraldaketa ahalbidetzeko. Bertan eguneko ordu asko pasatzen dituztenek bertan ezagutu dezakete bizikidetzaren osasuntsua eta zoriontsua zer den. Hori probatu duenak, bere baitan gordeko du erreferentzia hori, eta noranahi doala, berarekin eramango du. Irakasleon

lanbideak hori eskaintzeko aukera ematen digu. Sekulako aukera da.

### Erreferentziak

- Duque, E., Carbonell, S., de Botton, L., & Roca-Campos, E. (2021). Creating Learning Environments Free of Violence in Special Education Through the Dialogic Model of Prevention and Resolution of Conflicts. *Frontiers in Psychology, 12*, 1-16. <https://doi.org/10.3389/fpsyg.2021.662831>
- Finkelhor, D., Turner, H., Ormrod, R., & Hamby, S. L. (2009). Violence, Abuse, and Crime Exposure in a National Sample of Children and Youth. *Pediatrics, 124*(5), 1411-1423. <https://doi.org/10.1542/peds.2009-0467>
- Flecha, R. (2015). *Successful Educational Actions for Inclusion and Social Cohesion in Europe*. Springer. <https://doi.org/10.1007/978-3-319-11176-6>
- Flecha, R. (2021). Second-Order Sexual Harassment: Violence Against the Silence Breakers Who Support the Victims. *Violence Against Women, 27*(11), 1980-1999. <https://doi.org/10.1177/1077801220975495>
- Harvard Medical School (2015). *Harvard Second Generation Study*. <https://www.adultdevelopmentstudy.org/>



- Holt-Lunstad, J., Smith, T. B., & Layton, J. B. (2010). Social Relationships and Mortality Risk: A Meta-analytic Review. *Plos Medicine*, 7(7), e1000316. <https://doi.org/10.1371/journal.pmed.1000316>
- León-Jiménez, S., Villarejo-Carballido, B., López de Aguilera, G., & Puigvert, L. (2020). Propelling Children's Empathy and Friendship. *Sustainability*, 12(18), 7288. <https://doi.org/10.3390/su12187288>
- Puigvert, L., Gelsthorpe, L., Soler-Gallart, M., & Flecha, R. (2019). Girls' perceptions of boys with violent attitudes and behaviours, and of sexual attraction. *Palgrave Communications*, 5(1), 1-12. <https://doi.org/10.1057/s41599-019-0262-5>
- Racionero, S., Ugalde, L., Merodio, G., & Gutiérrez, N. (2020). «Architects of their own brain». Social impact of an intervention study for the prevention of gender-based violence in adolescence. *Frontiers in Psychology*, 10, 3070. <https://doi.org/10.3389/fpsyg.2019.03070>
- Rios-Gonzalez, O., Puigvert, L., Sanvicen, P., & Aubert, A. (2019). Promoting zero violence from early childhood: a case study on the prevention of aggressive behavior in Cappont Nursery. *European Early Childhood Education Research Journal*, 27(2), 157-169. <https://doi.org/10.1080/1350293X.2019.1579544>
- Robers, S., Zhang, J., Truman, J., & Snyder, T. (2012). *Indicators of school crime and safety: 2011*. National Center for Education Statistics, U.S. <https://nces.ed.gov/pubsearch/pubsinfo.asp?pubid=2012002rev>
- Stöckl, H., March, L., Pallitto, C., & Garcia-Moreno, C. (2014). Intimate partner violence among adolescents and young women: prevalence and associated factors in nine countries: a cross-sectional study. *BMC public health*, 14, 751. <https://doi.org/10.1186/1471-2458-14-751>
- Sutton, J., & Keogh, E. (2000). Social competition in school: Relationships with bullying, Machiavellianism and personality. *British Journal of Educational Psychology*, 70(3), 443-456. <https://doi.org/10.1348/000709900158227>
- Thapa, A., Cohen, J., Guffey, S., & Higgins-D'Alessandro, A. (2013). A Review of School Climate Research. *Review of Educational Research*, 83(3), 357-385. <https://doi.org/10.3102/0034654313483907>
- Van den Besselaar, P., Flecha, R., & Radauer, A. (2018). *Monitoring the Impact of EU Framework Programmes. Expert Report*. European Commission. <https://doi.org/10.2777/518781>
- Villardón-Gallego, L., García-Carrión, R., Yáñez-Marquina, L., & Estévez, A. (2018). Impact of the Interactive Learning Environments in Children's Prosocial Behavior. *Sustainability*, 10, 2138. <https://doi.org/10.3390/su10072138>
- Villarejo-Carballido, B., Pulido, C. M., de Botton, L., & Serradell, O. (2019). Dialogic Model of Prevention and Resolution of Conflicts: Evidence of the Success of Cyberbullying Prevention in a Primary School in Catalonia. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 16, 918. <https://doi.org/10.3390/ijerph16060918>
- Wang, J., Iannotti, R. J., & Nansel, T. R. (2009). School bullying among adolescents in the United States: Physical, verbal, relational, and cyber. *Journal of Adolescent Health*, 45, 368-375. <https://doi.org/10.1016/j.jadohealth.2009.03.021>

## Txikitasunean Handi

Martin Jauregiälzo, Leire Arietaleanizbeaskoa eta Juankar Olaeta. Elkar Hezi ikastetxeko irakasleak.

Gauza, proiektu, istorio handi edo txiki guztiak bezala, amets bat bezain simple edo etereo den zerbaitekin hasten da dena. Badirudi eskuetatik ihes egingo duela, baina, aldi berean, hauskortasun hori indargune bilakatzen da. Zertarako balio dute munduko teknologia edo baliabide guztiak amets baten atzetik ez bagabiltza?

Gure kasuan, gure ametsa, **Elkar Hezi** osatzen dugunon ametsa, pertsonen prestakuntza osoan lagundu ahal izatea da, hau da, gure ikasleek bizi-kompetentzia guztietan ahalik eta mailarik onena lor dezaten. Zoriontsu izateaz gain amesten ikas dezatela nahi dugu, horrela, gizarte bidezkoagoa, hurbilagoa eta solidarioagoa irudikatzen duen utopia egingarri baten ertzak marraztu ahal izateko.

Egia da, gaur egungo zenbait joeretatik urruntzen garela, eredu erraldoiak ez ditugu atsegin, hauetan badirudi tamaina dela garrantzitsuena, zenbakien dantza etengabea da eta zifra horiek, handitzen diren heinean, autokonplazentzia egoerak sortzen dituzte. Guk, zenbakietan baino nahiago dugu pertsonengan, neska-mutilengan, gazteengan pentsatu. Zatitu, biderkatu edota murriztu ezin diren pertsonengan sinesten dugu, eta beraien ikaskuntza-prozesuan lagundu nahi ditugu, ametsen eraikuntzan.

Eredu txiki batetik abiatzen gara, txikia dena dugulako maite. Euskal Herria puntu txiki bat da munduan, hizkuntza propioa duena, hurbileko kultura baten inguruan artikulatzen da, ondo mugatutako balio eta tradizioak ditu, eta auzolanean eta lankidetzan eraikitako lurraldea dugu. Txikitasun, goxotasun honek mundura irekitzerakoan indartsuago egiten gaitu. Era berean, ez dugu ahazten pertsona txikiekin elkarreraginean gabiltzala; txikiak bai, baina bere txikitasunean handi. **Lazkao Txiki** esango lukeen bezala "umeei gerritik behera lurreraino heltzen

zaizkie hankak, eta jakin badakite nola eta norantz mugitu".

Horregatik, **ikas-komunitateen** metodologia jarraitzen dugu, egiaztatutako ebidentzia zientifikoetan oinarrituta dagoelako eta gure filosofiarekin bat egiten duelako. Hierarkia eta egitura zaharkituetatik urrun dagoen korrante pedagogikoa izanik gurea, berdinen arteko elkarrizketan oinarritutako eredu baten aldeko apustua egiten dugu. Horrela, gure ikasleek txikitatik **Virginia Woolf, Kafka, Grimm anaiak** edo **Albert Camusen** lanak irakurri eta tertulien bitartez hauen inguruan hausnartzen dute, baita **Ruper Ordorikaren** musika, **Mursegoren** edo **Harkaitz Canoren** literatura, **Maialen Lujanbioren** bertsoak edo **Xabi Payaren** artikuluak ere gertukoak ditugu.

Gure ikaskuntza-prozesua **talde elkarreragile** eta **liburutegi tutorizatu**en bidez indartzen dugu. Egunerokotasunean sortzen diren gatazkak berdinen arteko elkarrizketen bitartez bideratzen dira, **0 indarkeria 0**

**urtetik** egitasmoaren barnean. Azken batean, eskola irekia, norabide anitzekoa, pertsonen prestakuntzan eta zoriontasunean sinesten duena da gurea, eredu hori baita mundu hobea sortzeko tresna eraginkorra.



### **ESKOLA JAZARPENAK PREBENITU ETA BIDERATZEKO PROGRAMA ELKAR HEZIN**

Horregatik gure eredia eskola-jazarpeneren prebentziotik harago doa, holistikoagoa da, osoagoa, izan ere, denok bizikidetzaren egokiagoa eta betegarriagoa lortzea du helburu, non

edozein motatako indarkeriak tokia ez duen, baina gure helburua ez da bakarrik bata bestearen ondoan minik eman gabe bizitzen ikastea, baizik eta elkarrekiko harreman aberatsago, betegarriago eta gozagarriagoak izatea, azken batean, zoriontsuagoak izan gaitezten.

Horregatik ez da hau gure hezkuntza-proiektuaren baitan ekimen edo jarduerarildo isolatua, bakartua, baizik eta IKAS-KOMUNITATEen proiektu barruko Hezkuntza Jarduera Arrakastatsuen artean bat, baina gainerakoek ere helburu goren hori lortzeko ezinbesteko jotzen ditugu: Talde Elkarreragileak (elkar-ezagutza, laguntza...), Klasikoen bidez Literatur Tertulia Dialogikoak, Tertulia Dialogiko Kurrikularrak, Hezitzaile eta Familia guztion prestakuntzari begirako Tertulia Dialogiko Pedagogoak...

Beraz, gatazkak prebenitzeko eta bideratzeko eredu dialogikoa da gure ikuspegia, hau da, Hezkuntza Jarduera Arrakastatsua guztien oinarrian dagoena. Baina zer da Hezkuntza Jarduera Arrakastatsua? Bada, Nazioarteko

Hezkuntza Komunitate Zientifikoak egiazaturik, edozein testuinguru sozio-ekonomiko eta kulturaletan emaitza bikainak ematen dituen hezkuntza-jarduera. (Harvard, Cambridge-en egindako ikerketak, INCLUDED Europa mailako hezkuntza-ikerketak, Bartzelonako CREA ikerketa zentroa, ...)

### **0 indarkeria 0 urtetik**

Aurrekoaren baitan bereziki eta berariaz zainduta eta jorratuta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzio eraginkorra du xede nagusia gure jardun-moldeak, adibidez Maskulinitate Eredu Berri Alternatiboak jorratuz eta sustatuz. (BULLYING kasu asko eta asko, ezarritako harreman afektibo-sexualetan dute jatorria).

Gure eredia, Komunitate osoaren partaidetzan oinarritzen da (Batzorde Mixtoak).

Ikerketek diotenari jarraiki, etikaren hizkerarekin batera (ohikoena) desiraren eta erakargarritasunaren "hizkera"

erabiltzea giltzarria da, zeinaren bidez, ikasleak eurak bizikidetzatza egokiaren bermaitzaile nagusi bihurtzen diren.

Lehen esan bezala, lan-ildoetako bat, adibidez, gaiaren inguruko Tertulia Dialogiko Kurrikularra (Antropologia Soziala, Mundu Ikuskerak...) dira. Honetan, gaiaren gaineko testu hautatu zientifikoak irakurri egiten ditugu (edo bideo zatiak ikusi..), eta ondoren ezagutza, konszientzia, kontzientzia eta harreman egoki eta gozagarriak garatzeko nahia denon artean eraikitzen ditugu.



### Haur Hezkuntzatik Batxilergora


0 indarkeria 0 urtetik, lemak funtzionatu dezan arau bat/batzuk ezartzea ezinbestekoa da. Arau horrek errealia izan beharko du, ikasleen eguneroko bizitzarekin lotura zuzena duena, errepikatzen den jarrera desegoki bati erantzuten diona dena, zehatza, erraz identifikatzeko eta aldatzeko aukera ematen duena. Arau horien sortzeak/egiteak prozesu garrantzitsu eta parte-hartzaile bat du atzean zein eguneroko gertakarien erregistroarekin/jasotzearekin hasiko den eta komunitatea osatzen duten kide guztien arteko adostasunarekin aukeratzen amaituko den, beti ere batzorde misto baten koordinazio eta dinamizazioarekin.

Ezinbestekoa da indarkeriaz jantzitako edozein gertakariri bere lekua ematea eta garrantzirik ez kentzea, GARRANTZIA DU ETA! Tolerantzia 0 izan behar dugu jokabide desegokien aurrean eta biktimaren alde agertuko gara beti. Ondo tratatzen dutenak indartuko ditugu eta gaizki tratatzen dutenei protagonismoa

eta arrakasta kendu. Helburua ez da inor baztertzea, kontrakoa baizik: jarrera aldaketa bat bultzatzea eta berriz taldera erakartzea.

Azpimarratu behar da oso garrantzitsua dela isiltasunaren araua apurtzea eta gertaerak salatzea; ulertzea salatzen duena ez dela salataria ausarta baizik, beste aldera begiratzen ez duena.

Babes geruza(ezkutua) dugu beste klabetako bat. Zer da hau? Sarri ikusten da erasotzaileak bere bizkarrean "laguntzaileak" eramaten dituela. Bizkartzain paper honek arrazoi ezberdinak gorde ditzake bere baitan; lagun-mina izatetik hasita beldurra izateraino, beste aldean egoten hurrengo izatearen beldurra. Egoera hauetan erasotzailea hazi egiten da, handi-handia izan arte. Baina zer gertatuko litzateke babes geruza hori atzean beharrean aurrean izango balu? Biktimaren bizkarrean kokatuko balitz? Hauxe da eredu honek sustatu nahi duen beste ausardia jarreratako bat.



Baina nola hasi gara Haur Hezkuntzako haur bati hau guztia aurkezten? Txikientzat magiko den baliabide bat erabiliz, IPUINA. Begoña Ibarrolaren "Ausarten klubak" oso ondo biltzen ditu aurrez esandako guztiak eta hori izan da beraz abiapuntua HHn.

Bukatzeko, hementxe egindako tertulien (hauek klaustro mailan gurasoekin, ikasleekin... egindakoak dira) erreferentzia bibliografikoak.

### Erreferentziak

- Ibarrola, B (2012). *Ausarten kluba*. Elkar argitaletxea.
- Gómez, J. (2008). *El amor en la sociedad de riesgo: una tentativa educativa*. El Roure editorial.
- Olea, M. J. A., Fernández, R. M., & Rosell, L. R. (2012). El espejismo del ascenso en la socialización de la violencia de género. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, 26(1), 75-88.  
<https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=27426483010>
- Castro, M. (2014). *Masculinidades Alternativas contra la violencia de género*.  
<https://www.youtube.com/watch?v=Qhu1KJGYt7Q>

Eta beste hainbat.



## **Genero indarkeriaren prebentzioa Bigarren Hezkuntzan: ebidentzia zientifikoetan oinarritutako eskuhartze bat (MEMO4LOVE)**

Leire Ugalde Lujambio Psikodidaktikan Doktorea da. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHUko) Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia (HEFA) Fakultateko Didaktika eta Eskola Antolakuntza (DOE-DEA) Saileko irakaslea eta ikertzailea. Bere ikerlerroak hezkuntza eta genero arlokoak dira.

Genero indarkeria, mundu mailan zabaldua dagoen gizarte eta osasun arazo larria da. Nazio Batuek (United Nations, 2019) 87 herrialdeetan egindako ikerketa baten arabera 15 eta 49 urte bitarteko bost emakumetatik batek jasan du bere bikotekide batek eragindako eraso fisiko edo sexuala. Zoritxarrez datu hauek ez dira murrizten gazteen arteko harremanak aztertzen ditugunean, alderantziz, zenbaitetan gorantz egiten dute. Hala adierazten dute mudu mailan burututako ikerketek. Esaterako, Munduko Osasun Erakundeak (World Health Organization, 2013) egindako ikerketa batek baieztatzen

du 15-19 urte bitarteko neska gazteen hirutik batek bikotekidearengandik indarkeria fisiko, emozional edo/eta sexuala jasan duela. Ildo beretik, UNICEFek (2014) portzentai berberak berresten ditu baina, horrez gain, harreman afektibo esporadikoak izaten dituzten gazteak ere indarkeria mota hau jasaten dutela ohartarazten du. Gertuagoko esparruan arakatzuz gero, joerak antzera diharduela ikus dezakegu. Espainiako berdintasun Ministerioak 2019an buruturiko Emakumeenganako Indarkeriari buruzko Macro Inkestak, neska gazteek (16 eta 24 urte bitartekoak) bikotekide batengandik jasaten duten indarkeria psikologiko (% 46,1) eta fisiko eta sexualaren prebalentzia (% 19,3), 25 urtetik gorako emakumeek jasaten dutena (% 31,9 indarkeria psikologikoa eta % 14,4 indarkeria fisikoa edo sexuala, hurrenez hurren) baina handiagoa dela azpimarratzen du, eta emakume gazteak "indarkeriaren aurrean bereziki zaugarriak" diren emakume multzoan sailkatzen ditu (Espainiako Berdintasun Ministerioa, 2020). Datu hauek guztiak, nahiko kezagarriak ez eta erronka berri bat gehitzen zaio deskribatutako

egoera honi. Nazio Batuek 2020an argitaratutako Garapen Iraunkorreko Helburuen jarraipen txostenaren arabera, Covid-19ak emakume eta nesken indarkeria paraitzeko arriskua areagotu du (United Nations, 2020).



Indarkeria mota hau pairatzen duten neska gazteek osasun fisiko eta psikologikoa, zein garapen sozial positiboa kaltetzen duten ondorioak izaten dituzte. Hala, neska hauek gaixotasun kronikoak (asma, bihotzeko gaixotasunak, minbizia...), arazo psikologikoak (depresioa, antsietatea, kalte kognitibo eta emozionalak...), portaera eta

ohitura desegokiak (drogen gehiegizko kontsumoa, elikadura-portaeran nahasmenduak...) eta bizitzan zehar harreman biolentoak izateko aukera handiagoak izaten dituzte. Guzti hau kontutan izanik, zalantzarik ez dago genero indarkeriaren prebentziorako eskuhartzeak ezinbesteko bihurtzen direla.

Prebentzio neurriak ahalik eta azkarren hartzea komeni bada ere, nerabezaroa garai kritikoa da. Izan ere, nerabezaroa bikotekide arteko lehen harreman afektibo-sexualak gertatzen diren garapen aldia da. Lehen esperientzia afektibo-sexual horiek, harreman egonkorak edo noizbehinkakoak izanik ere, berebiziko garrantzia dute, etorkizuneko harremanak interpretatzen eta proiektatzen laguntzen duten eskema kognitiboen oinarri bihurtzen baitira. Garrantzitsua izango da beraz, harreman horien kalitatea zaintzea, indarkeriarik gabekoak direla bermatuz. Ikaskuntza hori ziurtatzeko eremu eraginkorra bihurtu daiteke ikastetxea eta, hala frogatzen du, MEMO4LOVE ikerketa proiektuaren esparruan aurrera eramandako eskuhartze programak.

**MEMO4LOVE** [EDU2016-75370-R] Espainiko Ministerioak babestutako ikerketa proiektua da. Sandra Racionero-Plaza (2020), Bartzelonako Unibertsitateko ikertzaile eta irakaslearen gidaritzapean aurrera eramandako ikerketa honek genero indarkeriaren gizarteratze prebentiboaren markoan kokatzen du bere jarduna. Interakzio sozial eta elkarrizketaren bidez, bigarren hezkuntzako gazteengan indarkeriarik gabeko harreman afektibo-sexualak sustatzea du helburu, horretarako, beraien gizarteratze prozesuetan barneratu duten indarkeriarekiko erakarpenaz kontzientzia hartuz eta hau eraldatuz. Programa 2019ko urtarriletik ekainera bitarte Bartzelonako Bigarren Hezkuntzako ISEI erdi-baxu eta baxuko eta aniztasun handiko hiru ikastetxetan ezarri zen. Ikastetxe hauetako 15 eta 16 urte bitarteko 126 ikaslek parte hartu zuten egitasmoan. CREA (Community of Researchers on Excellence for All) ikerketa taldeak genero indarkeriaren gizarteratze prebentiboaren esparruan bildutako ebidentzia zientifikoak, nahiz maila internazionalen genero indarkeriaren eta harreman toxikoen

inguruan argitaratutako emaitzak oinarri hartuta, 7 saio diseinatu eta ikastetxe hauetako ikasleekin garatu ziren. Saioak ikasleen gela naturaletan gauzatu ziren ondorengo edukiak jorratuz:

**1.go saioa, MAITASUNA ETA ERAKARPENA ERAIKUNTZA SOZIALA** dira: Maitasunaren eta erakarpenaren oinarri soziala azaltzen duen Jesus Gomez-en (2004) hitzaldi baten bideo proiektio bat ikusi ondoren, ikertzaileek ikasleekin ideia horren inguruan hausnartzeko eztabaida gunea irekitzen dute. Gai honen inguruan egun ditugun ebidentziek, gizarte mailan zabaldua dagoen "diskurtso hertsatzaile" bat dagoela argi utzi dute. Lagun arteko elkarrizketetan, komunikabideetan, filmetan, literaturan e.a. mutil biolentoak maiz asko protagonista bihurtzen dira hauekiko erakargarritasuna sustatuz. Erakarpen eredu horretan gizarteratzen garen heinean, zenbait neskek jarrera erasokorrak dituzten mutilak aukeratzen dituzte beraien harremanetarako, hauekiko sentitzen duten erakargarritasuna kontrola ezina dela sinistuta. Ebidentzia zientifikoek erakutsi digutenez ordea, erakarpen

ereduak aldatu daitezke eta MEMO4LOVE proiektuaren saioek erakarpen pauta hauek aldatzea dute helburu, harreman osasuntsuak eta ez biolentoak sustatuz.

**2. saioa, ASKATASUN AFEBKTIBO-SEXUALA ETA DISKURTZO HERTSATZAILEARI GAINJARTZEA:** Aurreko saioan aipatutako diskurtso hertsatzailearen kontzeptuan sakontzen da. Jarrera biolentoak dituzten mutilekiko erakargarritasuna sustatzen dituzten adibideak aurkezten dira eta hauen inguruko hausnarketa sustatzen da. Ikasleentzat ezagunak diren filmak, iragarkiak, abesti famatuen mezuak edo beste zenbait adibide erabiltzen dira horretarako. Jarrera biolentoak erakargarri gisa ulertzeak harreman afektibo-sexual egonkor zein esporadikoetan izan dezaketen eragina ere aztertzen da.

**3. saioa, LAGUNEN ARTEKO SOLIDARITATEA, BIOLENTZIA ETA ERRESPECTU FALTAK NORMALIZATZEARI UZTEA:** Engainuaren naturalizazioari eta harreman toxikoei aurre egiteko lagunen elkartasunaren garrantzia bezalako gaiak lantzen dira. Harreman afektibo-sexualetan

gertatzen diren desleialtasunak eta jarrera desegokiak, diskurtso hertsatzaile nagusiaren menpeko jarrera gisa ulertzea da helburua eta lagunek honen aurrean hartzen duten jarreraren inguruan hausnartzea. Nortzuk babesten ditugu gure jarrerekin? Engainatuak direnak edo engainatzen dutenak?



**4. saioa, INDARKERIAK OSASUNEAN ETA GARUNEAN DUEN ERAGINA:** Indarkeriak osasunean duen eraginaren inguruan psikologiak, psikiatriak, neurozientziak, genetikak eta medikuntzak jasotako ebidentzia zientifikoak aurkezten zaizkie ikasleei. Ebidentzi hauen arabera, harreman

toxikoei konexio neuronaletan eta garunaren arkitekturan duten eragin negatiboa eta harreman osasuntsuek berriz, garunean zein osasunean orokorrean jokatu dezaketen babes funtzioaren inguruan hausnartzen da beraiekin.

**5. saioa, MASKULINITATE ALTERNATIBO BERRIAK** (Flecha et al., 2013): Berdintasunean eta erakargarritasunean oinarritutako maskulinitate eredu berri honek genero indarkeriaren prebentzioan jokatu dezakeen papera aztertzen da.

**6. saioa, ONESPENA:** harreman afektibo-sexualetan onespenuak duen garrantziaren inguruan hausnartzea du helburu saio honek. Harreman afektibo-sexual bat osasuntsua izan dadin, ezinbesteko izango da harreman horretako partaideek askatasunez parte hartzen dutela ziurtatzea. Baimendutako harremana librea dela bermatzea zaila izan daitekeen egoerak aztertzen dira saioa honetan, botere erlazioak ematen direnean sortzen direnak kasu.

**7. saioa, MAITASUN ERROMANTIKOAREN ETA MIKROMATXISMOAREN INGURUKO USTE OKERRAK:** Bi gai hauek lantzen dituzten Diario Feministan argitaratutako bi testuren (Cañaveras, 2018; Joanpere, 2017) irakurketa egin ondoren, gai hauen inguruan zabaldua dauden uste okerrak eztabaidatzen dira saioan zehar.

Programa martxan jarri aurretik, eskuhartzearen erdialdean (lehen hiru saioak amaitu ondoren) eta amaieran (zazpigarren saioaren amaieran), ikertzaileek galdetegiak, talde eztabaidak eta sakoneko eztabaidak burutu zituzten parte hartzaileekin. Jasotako datuen analisiek agerian utzi zuten eskuhartzea eraginkorra izan zela eraldaketak sustatzeko. Modu honetan, programan parte hartu zuten nerabeengan ondorengo aldaketak antzeman ziren:

a) Diskurtso hertsatzaile nagusiak beraien bizitzetan zein gizartean duen presentziarekiko kontzientzia kritikoa garatu zuten.

b) Beraien zein besteen harreman afektibo sexualen inguruko pentsamendu, sentipen eta jarrerak aztertzeko tresna kognitiboak eskaini zizkien eskuhartzeak parte hartzaileei, harreman intimo biolentoak arbuiatzeko joera handituz.

c) Parte hartu zuten neskeengan, erakargarri iruditzen zitzairen mutil ereduarekiko aldaketak antzeman ziren, mutil biolentoekiko erakasgarritasuna gutxituz eta mutil berdinzaileekikoa handituz.

d) Programan parte hartu zuten zenbait nerabek, esku hartzeari esker bereganatutako ezagutzak baliatu zituzten beraien lagunei zein komunitateko beste kide batzuei zituzten harremanen kalitateari buruz ohartarazteko edo beraien erakarpen eredu ez osasuntsuen inguruan hausnartzen laguntzeko.

e) Zenbait nerabek, esku hartze honi esker, bizitzen ari ziren harreman toxikoa utzi zutela ere baieztatu zuten.

Esku-hartze honek argi adierazten duen moduan, eskolak interbentzio gune pribiligiatu bilakatu daitezke nerabeek ebidentzia zientifikoetan oinarritutako erraminta kognitiboak eskuratu ditzaten eta horiei esker indarkeriarik gabeko harreman afektibo sexual askeak bizi ditzaten.



### Erreferentziak

Cañaveras, P. (2018). *Entrevista a Elena Duque. Las relaciones en las discotecas*. Diario Feminista. <https://eldiariofeminista.info/2018/12/31/entrevista-a-elena-duque-las-relaciones-en-las-discotecas/>

- Espainiako Berdintasun Ministerioa (2019). *Macroencuesta de Violencia contra la Mujer, 2019*. <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/Macroencuesta2019/home.htm>
- Flecha, R., Puigvert, L., & Rios, O. (2013). The new alternative masculinities and the overcoming of gender violence. *International and Multidisciplinary Journal of Social Sciences*, 2(1), 88-113. <http://dx.doi.org/10.4471/rimcis.2013.14>
- Gómez, J. (2004). "El amor en la sociedad actual. Un reto educativo". *Jesus Gómez Olot Lecture. A summary*. <https://vimeo.com/7757310>
- Joanpere, M. (2017). *¿El amor mata? No mata el amor, matan los violentos*. Diario Feminista. <https://eldiariofeminista.info/2017/11/25/el-amor-mata/>
- Racionero-Plaza, S., Ugalde, L., Merodio, G., eta Gutiérrez-Fernández, N. (2020). "Architects of Their Own Brain." Social Impact of an Intervention Study for the Prevention of Gender-Based Violence in Adolescence. *Frontiers in psychology*, 10. <https://doi.org/10.3389/fpsyg.2019.03070>
- UNICEF (2014). *A statistical snapshot of violence against adolescent girls*. UNICEF. <https://data.unicef.org/resources/statistical-snapshot-violence-adolescent-girls/>
- United Nations (2019). *Sustainable Development Goals. Goal 5: Achieve gender equality and empower all women and girl*. United Nations. <https://www.un.org/sustainabledevelopment/gender-equality/>
- United Nations (2020). *Progress towards the Sustainable Development Goals*. Economic and Social Council, United Nations. <https://undocs.org/en/E/2020/57>
- World Health Organization (2013). *Global and regional estimates of violence against women: prevalence and health effects of intimate partner violence and non-partner sexual violence*. World Health Organization. <https://www.who.int/publications/i/item/9789241564625>



## GAIAREN INGURUAN SAKONTZEN JARRAITZEKO IRAKURGAIK

Buletinean aurkeztutako ikerketa lerroa oinarri hartuta, denontzat eskuragarri dauden zenbait artikulu interesgarri aurkezten dira jarraian.

Puigvert, L., Flecha, R., Racionero-Plaza, S., & Sordé-Martí, T. (2019). **Socioneruroscience and its contributions to conscious versus unconscious volition and control. The case of gender violence prevention.** *AIMS Neuroscience*, 6(3), 204-218. <https://doi.org/10.3934/Neuroscience.2019.3.204>



Artikulu honetan, gizartean nagusi den diskurtso hertsatzailea (jarrera eta portaera oldarkorrak dituzten gizonak erakargarriago gisa aurkezten dituen) gizabanako askoren sexu-askatasuna mugatzen duen kontrol sozialaren adibide gisa aurkezten da. Era berean, garuneko plastikotasunari esker, hortatik askatzeko aukera ere mahaigaineratzen da.

Rios-Gonzalez, O., Puigvert, L., Sanvicén, P., & Aubert, A. (2019). **Promoting zero violence from early childhood: a case study on the prevention of aggressive behavior in Cappont Nursery.** *European Early Childhood Education Research Journal*, 27(2), 157-169. <https://doi.org/10.1080/1350293X.2019.1579544>



Artikulu honetan, Lleidako Cappont haurtzaindegian bost urtetik beherako haurrekin indarkeria prebenentziko martxan jarri duten eskuhartze bat aztertzen dute. Eskuhartzearen eraginkortasuna bermatzen duten hiru aldagai identifikatzen eta deskribatzen dituzte, indarkeriari 0 urtetatik hasita aurre egiteak duen garrantzia argi utziaz.

Roca, E., Melgar, P., Gairal-Casadó, R., & Pulido, M. (2020). **Schools That 'Open Doors' to Prevent Child Abuse in Confinement by COVID-19.** *Sustainability*, 12(11), 4685. <https://doi.org/10.3390/su12114685>



COVID-19aren itxialdian zehar, haurren tratatu txarrak areagotzeko egon den kezkaren aurreran zenbait ikastetxek haurren abusua prebenitzeko ingurune segurua bat sustatzeko jarduerak jarri dituzte martxan. Artikulu honetan, helburu hau jomuga izan duten Valentziako eta Murtziako autonomia erkidegoko bederatzi ikastetxeetan aurrera eraman diren eta ebidentzia zientifikoetan oinarrituta dauden jarduerak aurkezten dira.

Ruiz-Eugenio, L., Puigvert, L., Ríos, O., & Cisneros, R. M. (2020). **Communicative Daily Life Stories: Raising Awareness About the Link Between Desire and Violence.** *Qualitative Inquiry*, 26(8-9), 1003-1009. <https://doi.org/10.1177/1077800420938880>



Genero indarkeria pairatu duten emakumeek bizi duten indarkeriaren zirkulua hautsi eta berdintasunezko harremanei lekua egiteko "Topaketa Feminista Dialogikoak" izeneko jarduera arrakastatsuak duen eraginkortasuna aztertzen duen artikulua da hau. Horretarako, Espainiako institutu bateko 12 eta 13 urteko bi neska gazteen kasu azterketaren analisia egiten du.

Serradell, O., Ramis, M., de Botton, L., & Soler, C. (2019). **Spaces free of violence: the key role of Moroccan women in conflict prevention in schools. A case study.** *Journal of Gender Studies*, 29(2), 161-173. <https://doi.org/10.1080/09589236.2019.1620096>



Etorkinen populazio oso altua (%85) duen Kataluniako auzo batean kokatuta dagoen eskola baten kasuan oinarritutako artikulua honetan, indarkeriarik gabeko gune seguruak sortzeko, eskolak, komunitateko pertsona guztien partaidetza aintzat hartu behar duela ondorioztatzen da. Aztertzen den kasu zehatzean, auzoko emakume marokoarrek eskolan parte hartzeak, gatazken prebentzioan eta konponbidean izan duen eragin positiboa azaleratzen da.